



### Zer da "Dantza zati bat"?

"Dantza zati bat" Idiazabalgo "Nazioen mundua" autodeterminazioaren aldeko herri mugimendutik sortutako ekimen berri bat da. "Gazta zati bat" dokumentalaren arrakasteren ondotik, dokumentaleko soinu bandako abesti bat hartu eta koreografia bat egitean datza. Hainbat herritan egin dute jada "Dantza zati bat" grabaketa, besteen artean, Orio, Lesaka, Markina, Irurita..baita Argentina ere!

Honenbestez, **ordiziarrok ere bat egin nahi dugu ekimen honekin eta dantza pauso oso errazak eginez, ea herria dantzan jartzen dugun!!**

### EKIMENAREN IDEIA:

Ekimen hau, **Herriko Plaza Nagusian** grabatuko litzateke eta **flashmob** moduko bat da.

Gure asmoa, inprobisazio edo bat batekotasunaren kutsu hori ematea da, baina, modu antolatuan. Hau nola egin?

- Alde batetik, parte hartzen dutenen artean **taldeak osatuko** ditugu (elkarte edo eragile ezberdinak taldean apuntatu daitezke eta banaka apuntatzen direnak ere taldetan bilduko ditugu). Honenbestez, talde bakoitzak rol edo paper bat jokatu du. Adibidez;
  - Poteoan dauden kuadrilak eta plazan dantzan hasiko direnak.
  - Enkarguak egiten ari direnak, poltsak utzi eta plazan dantzan hasiko direnak.
  - Jolasean dabiltzak umeak, sokasalto utzi eta plazan dantzan hasiko direnak.

Norberak edo talde bakoitzak pentsa dezala zein paper edo rol jokatu nahi duen (denak poteoan ez du balio ;-). Ideiak baditugu, baina, norbera gustuen sentitzen den eran egitea komeni da, beraz, ekarpenei irekita gaude.

- Bestetik, sekuentzia edo orden bat mantenduz: Lau zatitan banatuko genuke abestiaren grabaketa eta elkarte edo talde bakoitzari esango zaio zein momentutan hurbildu plazara.

Orden hau, izen ematearen arabera zehaztuko dugu eta entsegu egunean adieraziko zaie partaide guztiei zer egin.

### DATAK:

Guzti hau prestatzeko, ezinbestekoa ikusi dugu entseguak antolatzea. Beraz, ekimena baino aste bete lehenago bi entsegu egingo ditugu:

- **AZAROAK 16 OSTIRALA: DANTZA IKASTEKO ENTSEGU IREKIA ARRATSALDEKO 19:00ETAN HERRIKO PLAZAN.**
- **AZAROAK 17 LARUNBATA: GRABAKETA ENTSEGUA ARRATSALDEKO 17:00ETAN HERRIKO PLAZAN.**

Grabaketa ofizialaren eguna:

- **AZAROAK 24 LARUNBATA: GRABAKETA OFIZIALA ARRATSALDEKO 15:00ETAN HERRIKO PLAZAN.**



▪ Ondoren:

- Trikipoteoa Ander eta Mikel trikitilariekin.
- Afaria + giroa alaitzen herriko artistak!

**ABESTIA:**

Grabaketarako erabiliko den abestia "Gazta zati bat" cd-ko 11. abestia da eta arin arin SINPLE baten bidez egingo dugu dantza.

**PAUSOAK: (ARIN ARINA).**

Pausoak oso errazak dira eta norberak etxean ikasteko aukera izan dezan, asteburu honetan youtuben bideo bat zintzilikatuko dugu.

Honez gain, aipatutako entsegu datetatik, norbanako edo talderen batek beste entseguren bat behar izanez gero, taldekideok prest gaude edozeini dantza pausoak erakusteko. Gurekin harremanetan jarri eta adostuko dugu eguna eta ordua.

1. *pausoa: 3 pauso ezkerrera, 3 pauso eskubira (1,2,3, 1, 2, 3).*

2. *pausoa: gora behera gora behera.*

3. *pausoa: 3 pauso ezkerrera (3 txalorekin) eta buelta, 3 pauso eskubitara (3 txalorekin) eta buelta.*

4. *pausoa: 1-2, 1-2-3*

*Kontuan izan:*

- *Abestia ez da hasieratik hasten (23. segundutik aurrera)*
- *Abesten duen zatietan pausoa luzatuko da:*

*Lehen aldiz abesten duenean: 1,2, 3 bueltak (3 txalorekin)*

*Bigarrenean aldiz abestean: gora behera,*

*Hirugarrenean berriz, lehengo pausoa eta hemen bukatzen da dantza.*

**IZEN EMATEA:**

**Izen emateari dagokionez berriz, bi zerrenda ezberdinduko ditugu.**

- DANTZARAKO: Hitzaro Euskara Elkartearen ([hitzaro@gmail.com](mailto:hitzaro@gmail.com)) edo 943 16 23 66 telefonoan goizez edo Amets Bide Kultur Elkartearen ([ametsbidekulturelkartea@gmail.com](mailto:ametsbidekulturelkartea@gmail.com)) edo ENTSEGU EGUNETAN PLAZAN BERTAN.
- AFARIRAKO: Herriko tabernan edo Pottoka tabernan. 10€



**DIFUSIOA:**

**ORDIZIAKO**

**AHOTSA:** [http://www.ordiziakoahotsa.net/index.php?option=com\\_content&view=article&id=449%3Adantza-zati-bat-herria-dantzan-autodeterminazioaren-alde&catid=36%3Aehezkerretikeraikiz&Itemid=3](http://www.ordiziakoahotsa.net/index.php?option=com_content&view=article&id=449%3Adantza-zati-bat-herria-dantzan-autodeterminazioaren-alde&catid=36%3Aehezkerretikeraikiz&Itemid=3)

**GOIERRIKO HITZA:** <http://ordizia.hitza.info/2012/11/08/%E2%80%98dantza-zati-bat%E2%80%99-ekimena-ordizian-ere-egingo-dute-herriko-eragileen-laguntzaz/>

**FACEBOOK:** [https://www.facebook.com/events/351403421628140/permalink/351673938267755/?notif\\_t=like](https://www.facebook.com/events/351403421628140/permalink/351673938267755/?notif_t=like)

**YOUTUBE:** <http://www.youtube.com/watch?v=p97K0Yak5Wo>

**DIARIO VASCO:** <http://www.diariovasco.com/v/20121113/tolosa-goierrri/dantza-zati-ekimena-azaroaren-20121113.html>

Ordizia herri dinamikoa izanik, eragile sozial, kutur zein kirol elkarte, zein edozein ordiziar animatu nahi dugu ekimen honetara. Halere, ez dugu herrira mugatzen deialdia, eskualde eta Euskal Herri guztira zabaltzen dugu Ordiziako “Dantza zati bat” festarako gonbita.

**Parte hartu nahi duen oro Azaroaren 24an Ordiziara etor dadila dantza egitera!**

**Zure eta zuen laguntza ezinbestekoa da ekimen hau aurrera ateratzeko! GOGOAN IZAN, GURE ESKU DAGO!**